

2020-10-27ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2020ko urriaren 27an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz.

-Azaldu ez diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramón Epelde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Lehenengo aipatu behar da Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkatearen Dekretuaren bidez neurri batzuk hartu direla bilera hau egiteko eta Pleno Aretoa txikia dela ikusita, hauek izango dira hartutako neurriak:

1.- Bakarrik bileran zuzenean parte hartuko dute korporatibo hauek: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Beste zinegotziek, bere botoa delegatuko dute bere taldearen bozeramailean idatzi baten bidez. Bozeramaile bakoitzak hainbat boto izango ditu delegazioaren arabera.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oria, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurruchaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta bi boto gehiago ditu: 3 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko

7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONATZEA (2020-07-21; 2020-09-22).

Udalbatzak, aho batez, 2020ko uztailaren 21eko ez-ohikoa eta irailaren 22ko ez-ohiko bilkuren aktak onartu ditu.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020/190 DEKRETUTIK 2020/216 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2020/190 dekretutik 2020/216 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2021. EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak adierazi du proposamenaren ildo nagusiak:

-Hasieran ildo nagusia da udal zergen eta tasen tarifak mantentzea, Etxez – Etxeko zabor bilketaren tasaren izan ezik.

-Etxez Etxeko zabor bilketaren Tasari buruz ildo nagusiak hauek dira:

-Industrien tarifa aldatzea enpresen ekonomikoko tamainari egokitzeko eta ondorioz, jaistea tarifa txiki eta ertain enpresei.

-Garajeei: 5 ibilgailu baino gehiagoko garajeak zaborra zerbitzua kobratzea, 3 ibilgailu garaje baino 5 ibilgailu baino gutxiago garajeak ez dutelako lizentzia eskatu behar..

-Kovid 19 izurrite egoeratik hobariak 2020. Ekitaldirako. Egoera ikusita eta berriz osasun arreta egoera adiera delako eta hori eragotzi egiten duelako komertzio eta industriren jarduera ekonomikoa.

Kontuetako, Ogasuneko eta Aurrekontuko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, 2020ko urriaren 23an egindako bileran.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Cuentas, Hacienda y Presupuestos en reunión celebrada el día de 23 de octubre de 2020.

Idazkari kontu-hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa ikusi da, eta zerga arloan indarrean dagoen legediaren arabera erabakiko da; hain zuzen ere, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Behin-behineko onartzea Irurako Udaleko zerga-ordenantza hauek aldatzea:

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDI BEHARREKO TASEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

Aldaketa hauek onartzen dira:

ETXEKO ZABOR BILKETAREN TASA.

- Etxe bakoitzeko hiruhilekoa: 25,5€
- Dendak, elkarteak eta 5 ibilgailu baino gehiagoko garajeak, hiruhileko: 34€
- Tabernak, hiruhileko: 43€
- Zerbitzu edo industrial pabiloi 200m² azalerraino, hiruhileko: 80€
- Zerbitzu edo industrial pabiloi 201m²tik 500 m² azalerraino, hiruhileko: 120€
- Zerbitzu edo industrial pabiloi

Visto el informe económico-financiero del Secretario-Interventor y de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente en materia fiscal, en concreto la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Ante ello, el Pleno por unanimidad, se acuerda adoptar el siguiente

ACUERDO:

Primero.- Aprobar con carácter provisional la Modificación de las siguientes Ordenanzas Fiscales de este Ayuntamiento de Irura:

ORDENANZA FISCAL DE LA TASA POR PRESTACION DE SERVICIOS PUBLICOS Y REALIZACION DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.

Se propone aprobar las siguientes modificaciones:

TASA POR LA RECOGIDA DOMICILIARIA DE RESIDUOS SOLIDOS URBANOS.

- Por vivienda al trimestre: 25,50€
- Por comercios, sociedad y garajes de más de 5 vehículos al trimestre: 34€
- Por establecimientos hosteleros, al trimestre: 43€
- Por pabellones industriales o de servicios con superficie hasta 200m², al trimestre: 80€
- Por pabellones industriales o de servicios con superficie de 201m² hasta 500m², al trimestre: 120€

501m2tik 1.000 m2 azaleraino, hiruhileko: 150 €

-Zerbitzu edo industrial pabiloi 1.001m2tik 3.000m2 azaleraino, hiruhileko: 225€

-Zerbitzu edo industrial pabiloi 3.001m2 azalera gorakoak, hiruhileko: 300€

-Dantzalekuak, diskotekak eta antzekoak, hiruhileko: 538€

-Orokorrean beste unitateak, hiruhileko: 23€

-Baratzetan, hiruhileko: 15€

Hobariak(Covid19)

-2020an larrialdi egoeran (itxita) izan diren komertzioak eta enpresak ez kobratzea, zaborra tasa.

-2020ko Hirugarren eta laugarren hiruhilekoan osasun alarmaren egoeran mantentze bitartean (itxi gabe) %25 hobaria aplikatzea.

TASA.-GIZARTE LARRIALDIKO HARRERA -ETXEBIZITZA.

Tarifa hau ezarri da : 350€/hilero.

Bigarrena.- Aldaketa hauek 2021eko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean.

Hirugarrena.- Akordioa eta espedientearen jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari

-Por pabellones industriales o de servicios con superficie de 501m2 hasta 1.000m2, al trimestre: 150€

-Por pabellones industriales o de servicios con superficie de 1.001m2 hasta 3.000m2, al trimestre: 225€

-Por pabellones industriales o de servicios con superficie de más de 3.001m2, al trimestre: 300€

-Por discotecas, Salas de Fiestas y similares al trimestre: 538€

-En general, por resto de unidades, al trimestre: 23€

-En las huertas de cultivo, al trimestre: 15€

Bonificaciones (Covid19)

-Durante la duración del estado de alarma no cobrar tasas a empresas y comercios que han debido de permanecer cerrados.

-En el tercer y cuarto trimestre de 2020, durante la duración de la alarma sanitaria y a las empresas y comercios que no han cerrado establecer una bonificación del 25%

TASA.- PISO DE ACOGIDA PARASITACIONES DE URGENCIA SOCIAL.

Se establece la siguiente tarifa: 350 €/ mes.

Segundo.- Estas modificaciones entrarán en vigor al 1 de enero de 2021.

Tercero.- Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín

Ofizialean eta Udal honetako iragarkitaulan argitaratzea. Izapidetzerako (tramiterako), arau hauek beteko dira:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzaitzan egongo da.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea 30 egun balioduneko izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita (lehen egun baliodunetik), eta Udal-bulegoko lan orduetan.

c) Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. Artikuluan jasota datozenek.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Administrazio Prozeduraren Legearen 38. Artikuluak jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa Udalbatzaren aurrera eramane beharko dute.

Laugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 38 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presenta la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Cuarto.- En el caso de que no presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Eztabaida:

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du ados dagoela enpresa txiki eta ertainei zaborraren tarifa jaistea eta beste proposamenekin.

LAUGARREN GAIA

2019. EKITALDIKO UDALAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2019ko ekitaldiko Irurako Udaleko Kontu Orokorra aurkeztu da. Kontu Orokor hau udal erakundeko kontua bakarra da, ez dagoelako beste udal entitaterik. Kontu Orokorra idazkari kontu-hartzaileak prestatu du eta Udalaren buruak (Alkate- Lehendakariak) eman du.

Kontu Orokor honek Udal Kontu Batzorde Bereziaren 2020ko urriaren 23ko bileraren aldeko txostena jaso du.

Oraindik ez da iragarkirik argitaratu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Hori ikusita, aho batez, udalbatzak, hau erabaki du:

ERABAKIA:

1º.- 2019ko ekitaldiko Irurako Udaleko Kontu Orokorra onartzea. Nahiz eta hori izan, baldintzatu izango da jende aurreko izapidearen emaitzarekin, izan ere, erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez da aurkeztu.

2º.- Kontu Orokorraren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

BOSGARREN GAIA

PARTE HARTZE PROZESUA BIDERATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du:

PARTAIDETZAZKO DELIBERAZIO AKORDIOA

Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen IV. kapituluak "Hiritarren partaidetza" erregulatzen du.

Haren 67. artikulua honela dio:

"Kapitulu honen xedea Euskadiko tokiko erakundeen gobernu- eta

ACUERDO DE DELIBERACION PARTICIPATIVA

El capítulo IV de la Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi, se dedica a la regulación de la "Participación Ciudadana".

De acuerdo con el art. 67 de la misma:

"Es objeto del presente capítulo la regulación de las condiciones que garantizan la efectiva participación ciudadana de personas y

administrazio-funtzioen jardueratik eratorritako arauak eta plangintza-tresnak prestatzeko eta erabakiak hartzeko prozesuan pertsonen eta erakundeen edo elkarten partaidetza bermatuko duten baldintzak erregulatzea da”.

Horrela, 75. artikulua hau dio:
“Partaidetzazko deliberazio-prozesuen xedea da toki-erakundeak modu aktiboan entzutea eta erabakitze-prozesu baten barruan edo politika publiko bat formulatu eta erabakitzeko esparruaren barruan gauzatutako eztabaida publikoan agertu diren argumentu eta arrazoiak erkatzea.

Hori dela eta, udal honek parte-hartze prozesu bati ekin nahi dio, herritarrek hiru udal eraikinen erabilerari eta egokitzapenari buruz duten iritzia entzuteko:

- Udaletxea eraberritzea.
- Haurreskolako 1. Solairua.
(S.Migel plaza 6).
- Apaiz Etxeko beheko solairua
(S.Migel plaza 11).

Horretarako, partaidetzazko deliberazio-prozesu bat egin nahi du, Irurako herritarrei entzun eta arrazoiak eta motibazioak egiaztatzeko, proiektu horren oinarriko zuzentarauak prestatze aldera, aipaturiko Legearen 75. artikulutik 77. artikulura jasotakoarekin adostasunean.

Horren aurrean, eta aipatutako legearen 77. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, proposatu dute hartzea honako AKORDIOA:

entidades o asociaciones en el proceso de elaboración de normas, instrumentos de planificación y de toma de decisiones derivadas del ejercicio de las funciones de gobierno y administración de las entidades locales vascas.”

Así mismo el art. 75 , señala:
“Es objeto de los procesos de deliberación participativa, la escucha activa por parte de la entidad local y el contraste de argumentos y motivaciones expuestos en un debate público integrado en un proceso de decisión o en el marco de la formulación y adopción de una política pública”.

Ante ello, este Ayuntamiento quiere proceder a un proceso participativo para escuchar la opinión ciudadana sobre el uso y acondicionamiento de tres edificios municipales:

- Reforma de la Casa Consistorial.
- Piso 1º el edificio de Haurreskola
(Plaza S. Migel, 6).
- Bajo del edificio de Apaiz Etxea
(Plaza S. Migel,11)

Para ello quiere realizar un proceso de deliberación participativa para escuchar a la ciudadanía de Irura y contrastar los argumentos y motivaciones de cara a elaborar las directrices fundamentales de dicho proyecto y de acuerdo con lo dispuesto en el art. 75 al 77 de la Ley citada.

Ante ello, y de acuerdo con lo dispuesto en el art.77 de la Ley citada, se propone la adopción del siguiente ACUERDO:

1.- Partaidetzazko deliberazio-prozesu bat onartzea, hiru udal-eraikinen erabilera eta egokitzapena zehazteko.

2.- Gai hauen inguruan eztabaidatuko da:

- a) Udalerri honetarako oinarritzko beharrak.
- b) Eraikin horien erabilera eta egokitzapena.

3.- Udalerri honetako bizilagunek modu librean eta bakarka parte har dezakete.

Udalerri honetako elkarte eta erakundeek ere parte hartu ahal izango dute.

4.- Parte hartzeko bitartekoak:

- a) Ekarpinak edo iradokizunak bidaltzea Udalera.
- b) Eraikinetan bisita gidatuak.
- c) 2 gogoeta saio.
- d) Itzulera saioa.

5.- Informazio-bitartekoak:

- a) Informaziozko karpa.
- b) Informazioa sartzea web-orrian.

6.- Prozesuaren iraupena gehienez: urriaren 2tik azaroaren 30era arte.

7.-Arduradunak:

- Udaleko gobernuan: alkatea.
- Maila tekniko:
- Juridikoan: Udaleko idazkaria.
- Arkitektonikoan: Udaleko Hirigintza Saila.
- Prozesuaren garapena: Elhuyar

1º.- Aprobare un proceso de deliberación participativa para definir el uso y acondicionamiento de los tres edificios municipales.

2º.- Los temas de deliberación serían los siguientes:

- a) Necesidades básicas para este municipio.
- b) Uso y acondicionamiento de los citados edificios.

3º.- La participación sería libre y a título individual de los vecinos de este municipio.

También podrá participar las asociaciones y entidades de este municipio.

4º.- Medios de participación:

- a) Envíos de aportaciones o sugerencias al Ayuntamiento.
- b) Visita guiada a los edificios.
- c) 2 sesiones de reflexión.
- d) Sesión de retorno

5º.- Medios de información:

- a) Carpa informativa.
- b) Inserción de información en la página Web.

6º.- Duración máxima del proceso: del 2 de octubre al 30 de noviembre de 2020.

7º.-Personas responsables:

- A nivel de gobierno municipal: Alcaldía.
- A nivel técnico:
- Jurídico: Secretaría municipal.
- Arquitectónico: Departamento de Urbanismo municipal.
- Desarrollo del proceso: empresa

kanpo-entresa

externa Elhuyar.

8.- Jarraipen batzordea:
- 2 gobernu kide.
- 2 herritar.

8º.- Comisión de seguimiento:
- 2 miembros del equipo municipal.
- 2 ciudadanos.

9.- Ondorioak: kanpo-entresaren txostena, prozesuaren garapenari buruzkoa, eta egin diren iradokizunak eta ekarpenak.

9º.- Forma de conclusiones: informe de la empresa externa sobre el desarrollo del proceso y las sugerencias o aportaciones realizadas.

10.- Prozesuan ahalegina egingo da gizonen eta emakumeen parte-hartze parekidea bermatzeko, bai eta genero-ikuspegia kasuan kasuko gaietan txertatzeko ere.

10º.-En el proceso se procurará garantizar la participación paritaria de hombres y mujeres, así como la incorporación de la perspectiva de género en las materias de que se trate.

Partaidetzako prozesua ikusita, Udalbatzak dagokion erabakia hartuko du.

A la vista del proceso participativo el Pleno del Ayuntamiento adoptará el acuerdo que proceda.

Udalbatzak, bost boto alde (EH Bildu) eta lau abstentzio (EAJ/PNV) onartu du.

Eztabaida:

Alkateak adierazi du Batzordean argitaratu zer den helburua ,udal eraikinen erabilera herritarrek eztabaidatzea eta erabakitzea, prozesuen irizpideak, baliabideak eta bere gauzatzeko bileren programa. Azaroan bi bilerak egingo dira herritarrekin eta azaroaren 30an azken saioa.

Ana Leunda zinegotziak, EAJ/PNV) adierazi du hau:

EAJ/PNV zinegotziek, argi utzi nahi dutela, partaidetzako prozesuarekin ados gaudela. Parte hartzeko asmoa zeukatela baina informazio faltagatik erabaki dutela ez joatea . Aipatzen du 2020ko martxoan 3ko udalbatzan galde erregutan eztabaida .Han alkateak adierazi zuen prozesu hasi aurretik bilerak egingo zirela beste udal taldearekin, baina bilera hauek falta bota dugu, ez zutela asko eskatzen ,informatuta egotea eta ez dela horrela izan. Azkeneko astean urriak 22an, hirigintzako batzordean eta udal aparejadorearen esker, lortu zituztela Udaletxe berritzeko lau aukerak.

Akordioaren Proposamenaren, zalantzak sortu dietela azken esaldian: "Partaidetzako prozesua ikusita,Udalbatzak dagokion erabakia hartuko du" Eta galdetzen du herritarrek aukera ez egokiena erabakitzen duten, udalbatzak hori erabaki behar duen.

Alkateak erantzun du hau: Udaletxe erreforma idatzi zuen arkitektoari galdetu zen obra egiteko zer beste aukerak ziren, partaidetza prozesu egiteko aukera bakarra aurkeztea ez dela egokia eta beste aukerak batzuk prestatu zituen. Dokumentu hau ezagutzeko EAJ/PNVeko zinegotziek aukera izan dutela dokumentu hau ezagutzeko, aparejadoreari galdetuz bezain pronto. Alkate berak ezan zion aparejadoreari batzorde informatiboan puntu hori ezartzea, azaroaren 16an bilera izango dela herriarekin dokumentu hori aurkezteko. Gainera beste udal eraikinen erabilera ere herritarrei galdetuko dela. EAJ/PNVek uko egin diotela jarraipen batzordean parte hartzeari eta han batzorde horretan ez da erabakitzen zer proiektua aurkezten den, bakarrik zer eta nola aukeratu behar den. Beraiek akordioa sinatu dute jarraipen batzordean, erabakitzen den unean kasu egingo diotela herritarrek erabaki dutenari.

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) erantzun du ados daudela prozesuarekin eta herritarrei hitza eman behar diola, eta informazio falta dagoela eta abstenituko direla.

Alkateak erantzun du lehen ez zaiela eman herritarrei benetako aukerarik erabakitzeko, bestela obra hasita izango zirela.

SEIGARREN GAIA

2020. EKITALDIKO UDALBILTZAREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak Udalbiltza Partzuergoaren kide da. Eta Udalbiltzak 2017ko irailaren 22ko Kontseilu Nagusian onartu zuen herriak duen biztanle kopuruaren arabera ordaintzea. Ondorioz, 2020. ekitaldian Irurako Udalaren ekarpena 4.000 eurokoa izango da.

Hori ikusita, udalbatzak, bost boto alde (EH Bildu) eta lau aurka (EAJ/PNV) hau onartu du:

ERABAKIA

Aipatu den 4.000 euroko ekarpena onartu eta ordaintzea.

Eztabaida:

Alkateak adierazi du ere, urte batzuetan ez zela kuota ordaindu eta eskatu dio idazkariari gai aztertzea, baina bere iritzia ordaintzea dela.

ZAZPIGARREN GAIA

TOLOSALDEKO HILTEGIKO MANKOMUNITATEAREN 2020. EKITALDIKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosako Hiltegiko mankomunitateak 2020ko otsailaren 27an egindako bileran, udalen urteko ekarpena onartu dute. 2020. ekitaldian Irurako Udalaren ekarpena 972 eurokoa izango da.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1.º- Aipatu den ekarpena onartu eta ordaintzea.

ZORTZIGARREN GAIA

EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "MARTIN VILLA PERTSONA "NON GRATA" IZENDATZEA" ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio ahua aurrekztu da:

"MARTIN VILLA PERTSONA "NON GRATA" IZENDATZEKO MOZIOA

Estatu espainiarraren inpunitate politika, diktadura frankistan eta trantsizio politiko deiturikoan gauzaturiko gizateriaren aurkako krimenen ikerketa eta auzipetze ezari dagokionez, gaur egungo arazoa da, gizartean eta gutxieneko estandar demokratikoak bete nahi dituen Estatu ororen oinarritzko zimenduetan eragina duena.

Rodolfo Martín Villa politika eta errepresio frankistaren egile nagusietako bat izan zen 60 eta 70eko hamarkadetan, SEUko buru nazional, sindikatu bertikaleko idazkari eta Bartzelonako gobernari zibil izan baitzen. Gero, Arias Navarroren gobernuarekin Harreman sindikaletarako zein gobernazio ministro eta, ondoren, Suarezren gobernuarekin Barne ministro izan zen. Haren aginte pean, ministro zela 1975ko Abendua eta 1979ko apirila bitartean, errepresio odoltsuaren erantzule izan zen, krimen larriak gauzatu baitziren: Gasteiz (1976), amnistiaren aldeko astea edota Iruñea (Sanferminak 1978), Euskal Herrian, eta baita hemendik kanpo, Madril, Malaga, Tenerife; Bartzelona, Alacant. . .

Martin Villa inputatua izan da, justizia unibertsalaren printzipioa aplikatua, Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalean gizateriaren aurkako krimenak egotzita, haren jarduna giza eskubideen urraketa masibo, sistematikoa eta antolatuen esparruan gauzatu baitzen, berrogei urtetan zehar, diktadura frankistan, eta Trantsizio deiturikoan.

Gizateriaren aurkako krimenak direnez, preskripzioa ez da ezartzen, eta aipaturiko delituak ez daitezke ez amnistiatu, ezta indultatu ere. Horregatik, Argentinako agintari judizialek haren estradizioa eskatu zioten Gobernu espainiarrari. Ministro Kontseiluaren 2015eko martxoaren 13ko Erabakiak ukatu zuen eskaera.

Dena den, eta aipaturiko kereilaren tramitazioari utzi gabe, Estatu espainiarrak Giza Eskubideen eta nazioarteko zuzenbide penalaren arloan hartutako eginbeharrak behar bezala betetzeko, beharrezkoa da dagokien prozesu judizialak hastea, Martin Villak izan dituen erantzukizun penalak zehaztu eta garbitzeko.

Ez dirudi ordea horretarako asmoa duenik, Espainiako aginte eremu ezberdinetatik kereilaren tramitazioa galarazten saiatzeaz gain, irailean Maria Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartu bezperan, Gobernu presidente izandakoek eta beste zenbait pertsona esanguratsuk gutuna atera zuten Martin Villari babesa eskainiz, frankismoaren biktimenez iraingarria eta justiziaren jardunean eragiteko ahalegin onartezina.

Aurrekoa oinarri harturik, Irurako Udalaren Osoko Bilkurari eskatzen diogu ondoko mozioa har dezala:

MOZIOA

1.- Gobernu espainiarra premiatu 2015eko martxoaren 13an Ministro Kontseiluak hartutako erabakia bertan behera uzteko, alegia Maria de Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartzeko egindako estradizio eskariari zegokiona.

2.- Nazioarteko Zuzenbidearen "estraditatu edo epaitu" printzipioa aplikatuz, Estatuak behar bezalako neurriak har ditzan auzitegi espainiarrek diktadura frankistan eta Trantsizio politiko deitutakoan gauzatutako gizateriaren aurkako krimenak ikertu eta epaitu ditzaten, eta, bereziki, Martin Villaren erantzukizuna izan daitezkeenak.

3.- Udalerri honetan Martin Villa pertsona "non grata" deklaratzeari.

4.- Baldin eta inoiz Irurako Udalak bere garaian Martin Villari emandako ohorezko aipu eta dominarik eman badizkio, berehala kentzea, bertan bera utziz inongo gorazarrerik.

5.- Maria Servini epaileari frankismoko krimenen zigorgabetasunarekin amaitzeko egiten ari den lana eskertu, Gobernu Espainiarrak jarritako oztopo guztien ondotik, presidente izandakoek eta beste zenbait ordezkari gutun bidez Martin Villari eman babesa salatu eta Argentinako epaitegia egiten ari den lanaren jarraitzea eskatu

6.- Erabaki hau ondoko hauei helaraztea: Justizia Ministerio espainiarrari, Auzitegi Nazionalaren buruari, Auzitegi Gorenaren buruari, Estatuko Fiskaltza Nagusiari eta Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalari."

Eta udalbatzak, aho batez, onartu du.

Eztabaida:

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du beste proposamen batekin etorri dela, baina berdina dela titulua eta 3º puntuan izan ezik. Bere proposamena hau da:

Titulua:

“Diktadura frankistan eta trantsizio politikan gauzatutako gizateriaren aurkako krimenak ikertu eta epaitzearen aldeko mozioa”.

“3º.-Frankismo garaian zein ostean giza eskubideen eta gizateriaren aurkako krimenak eragiteagatik epaituak eta kondenatuak izan diren edo izango diren pertsona guztiak “ pertsona non grata” izendatzea udalerrri honetan”.

Bestalde erantsi du ados daudela mozioarekin.

BEDERATZIGARREN GAIA

EGIARI ZOR FUNDAZIOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “MOTIBAZIO POLITIKOKO TESTUINGURUAN GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK JASAN DITUEN BIKTIMEI LAGUNTZEA” ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

“Mozioa, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeko, biktima horien erreparazioa eta aitortpena tramitatzeko, uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen duen apirilaren 4ko 5/2019 Legean oinarrituta.

Egari Zor Fundazioak honako proposamen hau aurkezten dio Irurako Udaleko Osoko Bilkurari, eztabaidatu eta bozka dezan:

MOZIOA

Zioen azalpena

Egari Zor Fundazioa 2012. urteaz geroztik ari da lanean Estatuak eragindako edo sustatutako indarkeriak jasan dituzten biktimen eskubideen alde. Fundazioa osatzen dute erailak izan ziren pertsonen senitartekoez, eta zaurituak edo torturatuak izan ziren pertsonak.

2019ko irailaren 27an epea zabaldu zen giza eskubideen urraketan biktimak apirilaren 4ko 5/2019 Legearen babespean aitortzeko eskaerak aurkezteko. Lege horrek aldatu egin zuen uztailaren 28ko 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1979 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasandako biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Legearen helburua honakoa da: funtzionario publikoek beren eginkizunetan edo beren eginkizunetatik kanpo eragindako giza eskubideen urraketan biktimak aitortzea; taldean edo modu isolatuan, indibidualki eta kontrolik gabe jarduten zuten partikularrek eragindako eskubide urraketak aitortzea; eta, urraketa horien ondorioz, pertsonen bizitzan edo osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexuarean izandako eraginak aitortzea.

Laburki esanda, Legearen bidez aitortza jaso dezakete 1979tik 1999ra bitartean estamentu ofizialek praktikara eramandako edo sustatutako biolentziek EAEn eraildako, torturatutako edo larriki zauritutako pertsonak (edo urraketa-aren unean EAEn bizi zirenek).

Ehunka dira, milaka ziurrenik, denbora tarte horretan Estatuak praktikara eramandako giza eskubideen urraketa jasan zituzten pertsonak, eta aipatu legearen babesean aitortuak izateko egin beharreko kudeaketa ez da erraza.

Biktima izaera aitortzeko eskaera egiten duten pertsonak eskabidea aurkeztu behar dute. Hori euskadi.eus atarian elektronikoki bete dezakete, edo, bestela, eskabide-eredu normalizatua egoitza elektronikoko horretan bertan deskargatu eta Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu.

Eskaera horretan, giza eskubideen urraketa gertatu zen testuinguruaren deskribapena jaso behar da, eta biktima-izaera frogatzeko garrantzitsutzat jotzen diren txosten, ziurtagiri eta dokumentuak erantsi behar zaizkio. Hala ere, dokumentaziorik ez badago, inolako arazorik gabe egin daiteke eskaera. Egia Zor Fundazioa prest dago behar duen orori izapideak egiten laguntzeko. Horretarako, nahikoa da harremanetan jartzea info@egiarizor.eus helbide elektronikora idatziz edo 944 045 363 telefonora deituz.

Berebiziko garrantzia du Euskal Herriko indarkeria testuinguruan gertatu diren giza eskubideen urraketa guztiak erabat aitortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeak Estatuak eragindako tragediaren inguruko egia osoa aitortzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea ere ezinbestekoa da, bermatzeko giza eskubideen urraketen biktima bat bera ere ez dela geratuko dagokion babesik eta aitortzarik gabe.

Horregatik guztiagatik, Egiari Zor Fundazioak honako mozio hau onartzeko eskatzen dio Irurako Udaleko Osoko Bilkurari:

1. Irurako Udalak aitortza adierazten die Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketa jasan zituzten biktimei, eta egokitze jotzen du 5/2019 Legeak eskainiko dien erreparazioa, biktima horiek duten egia, justizia eta memoriarako eskubideak egikaritzeko urrats garrantzitsua izanik.
2. Era berean, Irurako Udalak animatzen ditu giza eskubideen urraketen biktima gisara errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eskaera aurkezteko borondatea duten udalerriko pertsonak prozedura hori martxan jartzeko eskabidea aurkeztera. Horrez gain, hori posible izan dadin, pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa ere hartzen du Udalak.
3. Irurako Udalak jendaurrean jakinaraziko du hartutako erabakia, dituen ohiko komunikazio-bideak erabiliz, eskaera prozedurak abiatzeko interesa izan dezakeen pertsona oro informatuta egon dadin dagozkion eskubideen inguruan."

“Moción de apoyo a la las víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política para la tramitación de su reparación y reconocimiento en base a la LEY 5/2019, de 4 de abril, de modificación de la Ley 12/2016, de 28 de julio.

Egiari Zor Fundazioa presenta al Pleno de Ayuntamiento de Irura para su debate y votación la siguiente

MOCIÓN

Exposición de motivos

Egiari Zor Fundazioa trabaja desde el año 2012 a favor de los derechos de las víctimas que han sufrido las violencias practicadas o auspiciadas desde el Estado. Conforman la Fundación familiares de personas que han sido asesinadas y personas que han sido heridas o torturadas.

El 27 de septiembre de 2019 se abrió finalmente el plazo para presentar las solicitudes de reconocimiento de víctimas de vulneraciones de derechos humanos, amparadas por la LEY 5/2019, de 4 de abril, de modificación de la Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999.

Una Ley que tiene como objetivo: reconocer a víctimas de vulneraciones de derechos humanos producidas por personal funcionario público en el ejercicio de sus funciones o fuera del ejercicio de sus funciones; o bien particulares que actuaban en grupo o de forma aislada, individual e incontrolada; y que, como consecuencia de esas vulneraciones, se haya causado una afección a la vida o a la integridad física, psíquica, moral o sexual de las personas.

Es decir, pueden ser reconocidas aquellas personas asesinadas, torturadas o gravemente heridas en la CAV (o que estuvieran domiciliadas en la misma en el momento de la vulneración) por violencias auspiciadas o organizadas desde estamentos oficiales entre los años 1978 y 1999.

La realidad es que, son cientos, incluso miles, las personas que han sufrido vulneraciones de derechos humanos por parte del Estado durante este periodo, y la gestión a realizar para ser reconocidas al amparo de la mencionada Ley no es sencilla.

Las personas solicitantes del reconocimiento de la condición de víctima deben presentar un escrito de solicitud que pueden rellenar electrónicamente en euskadi.eus, o bien descargar el modelo normalizado de solicitud en esa misma sede electrónica y presentarlo en cualquier oficina de Zuzenean.

Esta solicitud debe contener una descripción de las circunstancias en que se hubiere producido la vulneración de derechos humanos, y se deben adjuntar a la misma de los informes, certificados y documentos que considere relevantes a

efectos de demostrar la condición de víctima regulada en esta ley. Aún y todo, en caso de no contar con ninguna documentación, la solicitud puede hacerse sin ningún problema.

Desde Egiari Zor Fundazioa, estamos también dispuestas a ayudar en las tramitaciones a toda persona que lo requiera. Para ello, basta con ponerse en contacto con nosotras escribiéndonos a la dirección de correo electrónico info@egiarizor.eus o llamando al teléfono 944 045 363.

Es de vital importancia seguir recorriendo la senda hacia el pleno reconocimiento de todas las vulneraciones de derechos humanos que han ocurrido en el contexto de violencia del País Vasco. Se ha de reconocer, conocer y dar a conocer toda la verdad en torno a la tragedia generada también por el Estado, y lograr que ninguna persona víctima de vulneración de derechos humanos quede en desamparo.

Por todo ello, la Fundación Egiari Zor solicita al Pleno de Ayuntamiento de Irura que apruebe la siguiente moción:

1. El Ayuntamiento de Irura expresa su reconocimiento a las víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999 y acoge satisfactoriamente la reparación que se les dispensa en la LEY 5/2019, como un paso importante en la consecución de sus derechos de verdad, justicia y memoria.
2. Asimismo, el Ayuntamiento de Irura anima a las personas de su municipio que consideren reclamar su reconocimiento y reparación en calidad de víctimas de vulneraciones de derechos humanos, presenten la oportuna solicitud para abrir dicho procedimiento, comprometiéndose a prestarles asesoría y acompañamiento que se estime oportuno en dicho proceso.
3. El Ayuntamiento de Irura dará repercusión pública a esta decisión por las vías habituales de comunicación que dispone, para que las personas que pudieran estar interesadas en iniciar estos procedimientos sean conocedoras de los derechos que les asisten."

Eta udalbatzak, aho batez, onartu du.

HAMARGARREN GAIA

EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA" ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

"AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Irurako Udalaren EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

ZIOA:

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela eta, Irurako Udal honek, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeke arduratu. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betiketuen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

Aparteko une batean bizi gara, non osasun-egoerak foku guztiak bereganatu dituen eta gure bizimoduan eragin handia izan den. Egoera zaurgarria dauden pertsonak bereziki kaltetuak izan dira, horien artean indarkeria matxistaren biktimak. Konfinamenduan emakumeek eutsi duten egoera modu bortitzagoan azalera da gero, zantzu guztien arabera. Alde batetik, zerbitzu askok funtzionamendua aldatu dute, beste batzuk gelditu egin dira eta beste batzuek baliabideak desbideratu dituzte, zuzenean edo zeharka. Bestetik, eta aurreko krisietan gertatu zen bezala, jendarte-estres handiagoak eta jendarte-gehiengoaren bizitzaren prekaritate orokorrak erasotzaileen indarkeria areagotzea ekarriko du, eta emakumeek autonomia gutxiago izango dute erabakiak hartzeko.

Konfinamenduak, alde batetik, zerbitzuen prestazioan .alterazio bat eragin du, eta, bestetik, ondorio psikologikoak eta bestelakoak eragin ditzake emakume eta haurren, haien prozesuak eten egin baitira, eta, aldi berean, etxean indarkeria-mota eta -adierazpen desberdinak jasan baitituzte. Orain, lehentasunezkoa da jakitea, indarkeria matxistari dagokionez, nola eragiten dien krisi honek emakumeei, haien seme-alabei, eta sexu-genero sistemaren aurreko disidenteei, zer modu berri sortu diren, zer eredu aldatu diren, zer adierazpen areagotu diren... Litekeena da indarkeria matxistak beste bazterkeria- edo indarkeria-elementu batzuekin elkarrengaitzen duen kasu konplexuagoi erantzuteko beharra areagotzea. Izan ere, bikotekideek, bikotekide ohiek edo beste gizon batzuek emakumeengan zuzenean eragindako indarkeriaz gain, krisi honetan beste indarkeria-mota batzuk areagotuko dira, hala nola ekonomikoa. Erakunde gisa, gure betebeharra da emakume eta seme-alaba guztiek beren egoerarako arreta egokiena jasotzen dutela bermatzea.

Krisia ezin da aitzakia izan aurrekontuak izozteko edo murrizteko. Indarkeria matxistaren pandemiak lehentasuna izaten jarraitu behar du, eta, beraz, prebentzioa lantzen jarraitzeko, arreta egungo egoerara egokitzeko eta erreparazioa alde batera ez uzteko beharrezkoak diren baliabide guztiak

konprometitu behar ditugu. Arazoaren sustraian eragina izango duten ekimen integralak abiaraziz bakarrik lortu ahalko da arazoa desagerrarazten aurrera egitea.

Eta, beti bezala, mugimendu eta aditu feministen eskutik egin behar dugu. Krisiaren lehen unetik ahotza altxatu duten horiek, konfinamenduan gatibu hartuta arrisku-egoeran zeuden emakumeei eta euren seme-alabei arreta emateko eskatu dute, eta behin deskonfinamendua iritsitakoan emakumeengan izango zituen ondorio bereziak begien bistatik ez galtzeko.

Gogoan dugu, halaber, aurten Euskal Herrian hil dituzten 4 emakumeak, denak konfinamenduaren hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, denok, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Errealitate sozial larria da, denoi interpelatzen gaituena, ezin dugu eta ez dugu beste alde batera begiratu behar. Erakundeok erantzukizun berezia dugu horretan.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

1.- Irurako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.

2.- Irurako Udal honek konpromisoa hartzen du COVID19aren krisiak indarkeria matxistetan izan ditzakeen eraginak aztertzeko, aldundiekin, Berdintasunerako Nafarroako Institutuarekin/Emakunderekin eta mugimendu feminista eta emakume-elkarteekin koordinatuta, eta horiei aurre egiteko beharrezkoak diren ekintzak identifikatzeko.

3.- Irurako Udal honek konpromisoa hartzen du aurreko puntuan identifikatutako beharrei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren programak/neurriak/zerbitzuak martxan jartzeko edo indartzeko.

4.- Horretarako, Irurako Udal honek ez du murrizketarik egingo ZI2leko aurrekontuetan eta beharrezkoak diren partidak handituko ditu.

5.- Indarkeria matxistei erantzuteko koordinazio protokoloa izan ezean, Irurako Udal honek egiteko konpromisoa hartzen du, herrialdeko/erkidegoko berdintasun instituzioekin batera eta egungo egoerara egokituta, mugimendu feministarekin, emakumeen kolektiboekin eta beste kolektibo sozial batzuekin batera modu parte-hartzailean.

6.- Irurako Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi / Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun -zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko, nagusiki COVID19ko krisiak eragina berezia izan duen esparruetan.

7.- Irurako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa indartuko du (osasun krisiari egokituta), beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.

8.- Irurako Udal honek pandemiaren garaian sortu ziren tokiko zaintza-sareak babestuko ditu, bai eta, oro har, herri-kolektiboen lana ere, indarkeria matxisten inguruko prebentzio eta sentsibilizazioko ekintza komunitarioak indartzeko eta bultzatzeko, egungo egoetara egokituta.

9.- Irurako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako (eta egungo egoerari egokitutako) jabekuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorren: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.

10.- Irurako Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako eta egungo egoerari egokitutako sentsibilizazio eta formazio jarduera iraunkorrak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzen, baiezko onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.

11.- Irurako Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko egungo egoerari egokitutako jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. Jasoz

12.- Erakunde honetatik, hau da, kurako udaletik, borroka feministaren alde hartu dugu konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzen bide eta tresna nagusia den heinean.

13.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.”

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) eskatu du mahai gainean uztea denbora dagoelako azaroaren udalbatzan tratatzeko.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, erabaki du mahai gainean uztea azaroko udalbatzan tratatzeko.

Alkateak erantzun du ados dagoela baina bileraren aurretik lan egin behar da gai adosteko.

HAMAIKAGARREN GAIA
IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOTENAK JAKINARAZTEA.

Hauek aurkeztu dira:

-Irurako Udalaren 2020. Ekitaldiaren 2º hiruhilekoaren fakturen ordainketaren epea: 3,02 egun.

-Irurako Udalaren 2020. ekitaldiaren 3º hiruhilekoaren fakturen ordainketaren epea: 1,66 egun.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HAMABIGARREN GAIA
GALDE -ERREGUAK.

Ez da izan.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:20an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA